

PANKREAS

Patxo Telleria



PANKREAS

Gaur egungo tragikomedia bertsoz paratua

FITXA ARTISTIKOA

Egilea:

Patxo Telleria

Zuzendaria:

Jokin Oregi

Aktoreak:

Mikel Martinez,
Patxo Telleria,
Joseba Apaola:

FITXA TEKNIKOA

Bertso zuzendaritza:

Karmele Aranburu

Bertso aholkularitza:

Andoni Egaña

Zuzendari laguntzailea:

Getari Etxegarai

Musika:

Santiago Ramos

Jantziak:

Azegiñe Urigoitia

Eskenografiaren diseinua:

Eider ibarrondo eta Isabel
Acosta

Eskenografiaren eraikuntza:

Eskenitek

Argiztapena

Gaizka Rementeria "Milakamoon"

Ekoizlea:

TARTEAN teatroa

Ekoizpen arduraduna:

Ane Pikaza

688 617 712

tartean@tartean.com

Banaketa:

Maria Goiricelaya



2014ko Martxoan
Arriaga Antzokian estreinatua

Hiru lagun. Lehenak pankreasen transplante baten premia larria dauka. Bigarrenak suizidatzeko asmoa dauka hemendik urte batera, heredentziako Alzheimerri izkin egiteko. Hirugarrenak proposamen bat egingo dio bigarrenari: suizidioaren epea aurreratzea, lehenengoari bere pankreasa emateko. Une Une hartatik aurrera ezusteko gertaerak bata bestearen ondoren etorriko dira, fisika modernoaren axioma bati men eginez: gerta daitekeen guztia, denik eta sinesgaitzena bada ere, gertatu egiten da noizbait.

PANKREAS

Hiru pertsonaiak eskenan sartu eta publikoari hitz diote.

JONAN

Gauza asko idatzi ziren gau hartan jazo zenaz.
Sakrifizioa aipatu zen, eta inmolazioa,
anaitasuna, mesede eta abnegazioa.
Denek jokatu zuten imaginazio handiaz.

PAUL

Ez zen kristaurik egon egirik esan zuenik.
Gertatu ohi den bezala, hemen eta beste inon,
fikzioa egiari gailendu egin zitzaion.
Irudimena daukagu sobera estimaturik.

JABILO

Jazo daitekeen guztia, gerta daitekeena,
gertatu egiten da noizbait, lehen edo geroago,
dela eder edo itsusi, hortaz dudik ez dago.
Eta itzela izan zen gau hartan jazo zena.

JONAN

Egia esateko egin dugu bilera hau.
Argi azalduko dugu zer gertatu zen bertan,
ahoa bilorik gabe, zintzoki ta benetan...
Zintzotasunak oraindik indarrean badirau.

PAUL

Eta hasi egingo gara gezur bat ekiditen:
Ez da egia garenik txikitako lagunak.

JONAN

Duela hamar urte egin ginen elkarren ezagunak,
neurosia sendatzeko talde terapia egiten.

JABILO

Ni izan nintzen sartzen lehena, baina ez nengoen burutik.
Neskarengandik banandu eta ondorioz lur jota,
erreakzionatu ezinik, deprimiturik, itota.
Bakarrik sentitzen nintzen eta ezin iraun zutik.

JONAN

Badakizue tipo horrena, medikuaren aurrean...?
“Doktore, entzun doktore, ezin diat gehiago,
bakarrik sentitzen nauk... Dok... Doktore... Non hago?”
Ba Jabilo zen gizona bere bakardadean.

JABILO

Zure txisteeekin naukazu zeharo kokoteraino!

Jabilo hizketan ari den bitartean, Paul eta Jonan izkututzen dira.

JABILO

Gabezia afektiboa nuen banandu eta gero!

Paul? Jonan? Non arraio...?

Jabilok ingurura begiratzen du, izututa. Jonan eta Paul agertzen dira irribarrez.

(minduta) Ze grazia ta salero!

Nahiago bakardadea zure osti txarra baino.

JONAN

Orain oso lasai nabil! Ez naiz agresiboa inola!

PAUL

Terapian hasi zen Jonan, arbitroa jipoitu ostean
infantilen mailako futbol partidu batean.

Errezegi galtzen zuen emozioen kontrola.

JONAN

Garai hartan bizi nintzen estresagaz itotzen.

Ez nekien zertan nenbilen, amorrak itsuturik.

JABILO

Lamentagarria izan zen, beraz ez aitzakirik.

JONAN

Hala ta guztiz ere penalti garbia zen!

Jabilo eta Paul barrez.

JONAN

Zuek ez dakizue zer den familia oso oso bat

aurrera ateratzea mila euroko soldataz,

hile bukaera iristeko beldur izu galantaz,

emaztea zuregandik urrunduta erabat,

semeez beti mesprezuz zaituztela behatzen,

ezin duzula pagatu etxearen hipoteka,

ditxosozko autopistan ataskoak mordoka

ta jefe kabroiak beti begitan hatza sartzen!!

JABILO

Estresa, familia eta tabakoa dela medio

angina bat izan zuen, eta gero hiru infarto.

PAUL

Osasunez eta umorez zebilen nahiko txarto.

JONAN

Lantegi puta horrek hiltzen ninduen, dedio!!

PAUL

(*Ironiaz*) Ikus dezakezuenez, gainditua du jada.

JABILO

Jonan gaizki zegoen baina Paul beste horrenbeste.
Aspaldi egin nahi zuen bere buruaz beste.

JONAN

Paulek ba zeukan, eduki, benetako harrikada.

PAUL

Zahartzaroari beldur nion, ez da harrikada kontua!
Betidanik izan dut istimu handian bizitza,
horregatik eman nuen suizidatzeko hitza,
gaitzak ni akatu aurretik hiltzeko neure burua.
Begetal bihurtu baino nahiago dut hilotzik.
Zahartzaroak ez dauka batere lilurarik.
Hobe agur esatea kemena duzularik.
Ez da eromen suizida, argitasuna baizik.

JONAN

Zuretzat “argitasuna”, niretzat rollo petrala.

PAUL

Horrek gogora dakarkit poeta baten aipua:
“Hil zaitetz gazte ta utzi zimeldu bako gorpua”.

JABILO

Nik mila urte irautea sinatuko nuen berehala.

JONAN

Paulek erabaki zuen adin batera heltzean,
gorputzez eta buruaz osasuntsu egon arren,
suizidatu egingo zela, lasai eta pozarren.
Eta hala agertu zuen twitter ta Facebookean.

JABILO

Amak eskatu omen zion, zeharo kezkatuñik,
psikologo bategana joateko albait arinen.

JONAN

Kasu egin zion Paulek, eta hola elkartu ginen.

JABILO

Terapia jaso genuen hiru urtez baina alferrik.

JONAN

Alferrekoa izan zela? Etzazu esan gezurrik.

Terapeutak gutxienez lortu zuen etekina:
hiruron diruarekin ordaindu zuen liftina.

PAUL

Kokotsa kendu zioten ta ez zuen galdu muturrik.

JABILO

Zuetariko baten bat ohartuko zen honezkero
berba egiten dugula errimaz eta neurrian.

JONAN

Halaxe hitz egiten da gure “egoitza berrian”.

PAUL

Hola egiten dugu denok, arkitekto nahiz obrero.
Baina has dadila behingoz gau horren antzezpena.

JABILO

Hona hemen agertokia: neure etxebizitza.

JONAN

Afaltzeko batu ginen, arroza, zenbait pizza,
eta nola ez, ardoa, samurtzeko haren pena.

PAUL

Jabilo gaixo zegoen. Abiapuntua zen, antza,
orain urte bete izan zuen krisi diabetikoa.
Ondorioz pankreatitis larri, behinbetikoa.
Hala galdu zuen beraz bizitzeko esperantza.

JONAN

Etorkizun beltza zuen, estu eta zorrotza.
Pankreas berri bat lortzeko zeukan premia larria,
osterantzean akabo: hasieran elbarria,
geroago bista galdu ta azkenik heriotza.

JABILO

Pankreasa ematen duenik ez dago jende askorik.
Ama bezala, pancre-as bakarra dugu, tamalez.
Giltzurrunarekin aldiz, bakoitzak bina dugunez
bata eman dezakegu batere pentsau barik.
Diruarekin bezala: bi milloi badaukazu
bata erregalatzeak ez dizu ematen pereza...
Giltzurrun bat lortzea ez da, ez, gauza erreza.
Pankreasa behar baduzu, orduan jai daukazu.

PAUL

Zuetako baten batek pankreas bat donatzeko
ideia baldin badu, diru edo amoreagatik,

jakin dezala hilda egon behar duela aurretik.
Badaezpada esaten dugu, kapullona ez egiteko

JONAN

Pankreasa eman aurretik, kontsultatu alajaina,
eskatu ba iritzia maite duzuen horri:
galdetuiozu bazpaere zeure emazteari.
Badakit ze esango duen: “A ze ideia bikaina!”

JABILO

Dena prest daukagu eta hasiko da antzezpena.
Jonan lehenago heldu zen, ordu erdi bat inguru.
Nirekin nahi omen zuen hitz egin buruz buru.
Hasi dadila beraz, azken afariarena.

Jonan eta Paul kanpora doez.

Jabilo bakarrik dago eskenan. Tinbre hotsa.

Jonan sartzen da.

JONAN

Epa, Javilo, kaixo!
Hobetzerik igarri?

JABILO

Bai, motel, izugarri!
gauetan gaixo gaixo
ta egunez larri larri.
Aspaldi honetan nabil
aldrebestuta, konpadre.
Bizitzea egiten zait zail,
baina osterantzean hil,
hiltzen naiz de puta madre.

JONAN

Pankreasik begi bistan?

JAVILO

Atzo, istripu larria
izan zen autopistan.
Hamaika hildako listan.

JONAN

Notizia zoragarria!

JABILO

Jubilatak ziren denak,
sei andre ta bost gizon.
Ta legez, zaharra denak

ezin pankreasik emon,
nahiz osasuntsu egon.

JONAN

Zaharra izatea ze pena!
Desguazerako ere ez.

JABILO

Kontu izan aproja alena,
zaharra dela ezinbestez
luzaro bizi izan dena.

JONAN

Baina zure osasuna...
Bada zerbait pozgarria?

JABILO

Dakusat tunel iluna,
Eta bukaeran argia.
Hartzen duzu ironia?

JONAN

Hori nahi nuen egiaztu.

JABILO

Ez zaitez poztu erabat.
Ez dut euro bakar bat,
beraz, herentziaz ahaztu.
Etxea enbarguan daukat.

JONAN

Ez, salbatu nahi zaitut!

JABILO

Hara zer samaritano!
Ze ote zara, franciscano,
budista edo boy scout?
Ez zaude burutik sano!

JONAN

Ez nabil ba txantxetan!
Aizu, gezurra dirudi
Harrituta nago benetan:
ez zaude ba, penetan,
heriotzagatik urduri?

JABILO

Ahoa itxi ta isildu!
Ez da arraroa, gero.

Heriotza dut espero.
Hobe dut bromaz arindu,
ta ez lehiotik amildu.

JONAN

Utzi negarrari, arren!
Ze mañatia zaren!
Ba duzu irtenbiderik.
Zu irauteko bizirik
Paul hil behar da lehenbaitlehen.

JAVILO

Ez zaude ondo burutik!

JONAN

Pentsa ezazu behintzat!
Paulek dio aspalditik
joan nahi duela hemendik at...
Zuk behar duzu hildako bat...

JABILO

Asmo nazkagarria!

JONAN

Baina heriotzaren truke...

JABILO

Itxi dut belarria!!

JONAN

...zuk edukiko zenuke
pankreas berri berria!

JABILO

Zu bai zarela jeniala!
Ze politak zure asmoak,
ta zeinen eskuzabala
bestena bada azala!
Ole berorren potroak!

JONAN

Pauli suizidatzeko,
betiko esateko "aio",
urte bat fata zaio.
Lagunei laguntzeko
ez ote gara jaio?
Epea aurreratzeko
esaiozu bakarrik,

ta hilda dagoelarik
pankreaa emateko,
berak ez du beharrik.

JABILO

Ez diot eskatuko, ez,
sekula santan, morroia!

JONAN

Zu lasai egon zaitez.
Nire gain utzi marroia.

JABILO

Egon ixilik, kabroia!

JONAN

Ez da bakarrik fabore,
halafede, zuretzat
Emango dio balore
bere heriotzari, ohore.
Ta mesede niretzat!

JABILO

Nola?

JONAN

Ez banu lotuko
horrelako traturik,
biok zaituztet galduko.
Zu, amen esan orduko,
ta Paul berandu barik.

JABILO

Planteamendu bikaina
ta oso zure estiloan.
Estimatzen dizut, baina
nola arraio geroan
holako karga eroan?

JONAN

Pankreas bat ez da beruna!
Pisatuko du... zenbat?
Asko jota kilo bat!
Ez da hain karga astuna!

JABILO

Mesedez, nahiko daukat!
Ez zaitez berriro ausartu,
errespetu pixka bat.

JONAN

Barkatu, ez naiz ohartu...

JABILO

Nik ahal dut txantxetan hartu,
zuk har nazazu aintzat.

Txirrina entzuten da.

JONAN

Ez al duzu entzun txirrina?
Paul heldu da. Ireki.

JABILO

Ahaztu ideia ziztrina!

JONAN

Esan ahal zaio emeki.

JABILO

Egon isilik aitzina!

Paul sartzen da eskenan.

PAUL

Zelan gure gaixoa?

JABILO

Ondo.

JONAN

Txarto.

JABILO

Hainbestean.

Isilunea. Begirada tentsoak.

PAUL

Zer dugu?

JONAN Y JABILO

Ez dugu ezer.

PAUL

Zer dago zuen artean?

JONAN

Ezer ez!

JABILO

Deus ez!

JONAN

Horixe!

Lasai gagoz solasean.

PAUL

Pankreasik agertu al da?

JONAN

Nork daki? Tupustean
bakar bat ager daiteke,
badakizu, ezustean.
Urrun egon leike edo
gure begien aurrean.
Pankreasak holakoak dira,
bihurriak azken finean.
Amore eman eta gero,
gutxi uste duzunean
bat ager daiteke nonbait
inongo bazterrean,
hango ospitale edo
lagun baten barnean.

PAUL

Zer?

JABILO

Ezer ez da gertatu.

PAUL

Gertatuko da azkenean.

JONAN

Bai, gauzak gertatu ohi dira
gertatzen direnean.

PAUL

Eutsi ba esperantzari
amore eman beharrean.

JONAN

Aholku baikorrek daude
ezkorraren etxean?

PAUL

Jonan, ni ez naiz ezkorra,
ez behintzat sakonean.

JONAN

Bizia arbuiatzen duzu!

PAUL

Zuk gehiago, nire aldean!

Ez zizun medikuak
 tabakoa uzteko esan
 azken infartu bortitza
 sufritu zenuenean?
 Erretzen jarraitu ezkerro,
 hilko zara ezustean,
 hala ere erretzen duzu
 edozein bazterrean!
 Nik aldiz bizitza daukat
 estimu handienez.
 Latza baldin bada hiltzea
 sasoi zaudenean,
 latzagoa da bizitza
 osasuna galtzean.
 Bizitzari beldur diot
 ta maite era berean,
 maite dudalako diot
 beldurra sakonean.
 Beraz, noiz hil eta nola,
 ta ze baldintzapean
 neuk erabakiko dut
 garaia heltzen denean.

JONAN

Motel, mingaina daukazu
 sasoi ederrenean.
 Nire belarriak ordea
 ez daude mail berean.
 Ez dut piperrik ulertu
 sentitzen dut bihotzean.
 Mar mar horrek utzi nau
 lo egiteko trantzean.
 Kafea egitera noa
 zeren osterantzean
 zurrungaka hasiko naiz
 jota, bertan lurrean.

JABILO

Kafea non den dakizu?

JONAN

Hozkailuaren gainean.

JABILO

Orduan nik insulina
 jarriko dut tartean.

Ziztadaren ordua.

PAUL

Ba nik, Jabilo, aukeran
nahiago dut ez egon
une hontan zure aurrean.
(*Jonan-i*) Itxaron, zurekin noa.

JONAN

Xiringa ikustean
gordetzen zara ziztuan
amaren gonapean?

PAUL

Zorabiatu egiten naiz
odola begiratzean.

JONAN

Suizida bat izateko
kakatia antzean!

Paul badoa Jonanekin.

JABILO

Jonan, etorri mesedez.

Jonan Jabilogana doa. Paul eskenatokiko beste gunera doa.

JONAN

Zeozero nahi sukaldean?

JABILO

Etzazu bazterrik nahastu.

JONAN

Egon zaitez bakean.

JABILO

Ixilik egongo zara?

JONAN

Absolutamentean.

Jonan Paulengana doa. Orain Jabilo gune batean eta Jonan eta Paul bestean ikusten ditugu.

Jabilok insulina xiringa ziztatzen du.

Paul eta Jonan kafea prestatzen hasi.

PAUL

Butanoa erabiltzen du oraindik?

JONAN

Kuzinatzeko ez omen dao surik
baino gauza naturalagorik

PAUL

Baina hemen ez dago metxerorik.

Jonanek eskeintzen dio berea.

PAUL

Erretzen jarraitzen duzu, orduan?

JONAN

Jaun eta jabe naiz neure buruan
ta hilko naiz nik nahi dudan moduan.
Ez baitzara zu bakarra munduan.

Paulek sukaldeko gasa pizte du.

JONAN

Ta hiltzearen gaia aipatu duzunez...

PAUL

Ez dut gaia atera dakidanez.

JONAN

Zerbait esango dut baina nekez...
Ez baizait gertatzen batere errez

PAUL

Egin ezazu ba ahalegina.

JONAN

Hau ez nizuke esango ez bazina
adiskide kuttun eta mina.

PAUL

Milesker. Zuri lore berdina.

JONAN

Oraindik mantentzen duzu asmoa
hirurogei urtekin hiltzekoa?

PAUL

Bai horixe. Erabaki irmoa.
Kontu hori ez da txantxetako.

JONAN

Denbora arin pasatzen da, ligero,
ta urte eskas bat falta da honezkero.

PAUL

Hirurehun eta lau egun gaur gero.
Kontaketa egiten dut egunero.

JONAN

Aldiz, Jabilo, pankreasik gabe
hiltzen ari zaigu, oharkabe.

PAUL

Neu ere banaiz egiaren jabe,
baina salba liteke, halan da be.

JONAN

Salba liteke, bai, eta agian
zure esku dago neurri handian.

PAUL

Hitz egin mesedez modu garbian
eta sartu zaitez behingoz mamian.

JONAN

Hiltzear dago Jabilo pobrea.
Zergatik ez diozu ematen zurea?

PAUL

Neure zer, barkatu jakingurea?

JONAN

Pankreasa, ostia!

PAUL

Aita gurea!
Ez daukazu ba lotsa izpirik!

JONAN

Ez dizut esan pentsatu barik

PAUL

Bai, detailetxo bat salbuetsirik:
ni oraindik nagoela bizirik!!

JONAN

Badakit mementuz hala dala,
baina konpon daiteke berala.

PAUL

Deabruak anpara nazala!

Ez zara adiskide makala.
Paul sua martxan jartzera dora metxeroa piztuta, eta hala uzten du, eskuan ahaztuta.

JONAN

Baina ez al duzu zeure burua
 behingoan hiltzeko helburua?

PAUL

Zu... zu... zu
Paul metxeroaz erretzen da.

PAUL

¡¡Ay!!

JABILO

Zer da lanturua?

PAUL

(Jabilori) Ez da ezer!

JONAN

(Id) Neure metxerua!

PAUL

Esaidazu, txantxan ari zara?

JONAN

Oso ondo ulertzen dut zure ikara,
 pentsa lasai, ta egun batzuetara...

PAUL

Joan zaitez, mesedez, pikutara!!

JONAN

Ez da, baina, horren ideia eskasa!
 Ez zaizu ba inoiz burutik pasa?

PAUL

Nahikoa dugu, hau ez da jolasa!

JONAN

Baina...

PAUL

Bukatu da behingoz solasa!!

Jabilorengana bueltatzen dira. Honek insulina ipini du honezkero.

Ixilunea.

JABILO

Zerbait gertatu zaizue?

PAUL

Ez, dena normal doa.

JONAN

Ondo dena bai jauna,
horra egia osoa:
biziak bizirik gaude
ta zu hiltzear, gaixoa.

Jonan zigarroa piztera doa.

PAUL

Jabilo gaixorik eta
zuk erretzeko asmoa?

JABILO

Nigatik erre lasai, ba.
Hain du usain gozoa!
Aspaldi utzi nuen baina
piztu egin zait gogo.

PAUL

Zaindu egin behar duzu.

JABILO

Bizi osoa daroat
kontuz ibiltzen eta
orain hiltzera noa.
Hor dago hain zuzen ere
absurdoaren kakoa:
beldurtuta bitzitzea
omen da zentzuzkoa,
plazerra susmagarria
arrisku handikoa.
“Bizi zaitetz bizi gabe”,
horra gure leloa.
“Ez zaitetz ausartu ezertan,
ardia izan, ez otsoa”!
Nire bizitza iluna
izan da horrelakoa:
debekua eta zentsura,
dena alferrikakoa.

JONAN

Zurekin bizi izan ditut
mementu eder askoak.

PAUL

Eta egongo da gehiago,

oraindik bada denbora.

JABILO

Ez nazazue mesedez
modu horretan kontsola.

Hiltzera doazenei
hitz egiten zaie hola,
ta horixe bera nahi dut
ahaztu, arranopola!
Beraz utikan tristurak,
gaurkoan gora alkohola!
Une hauek ospatu gabe
ez dut joan nahi inola!

PAUL

Azkenera iristeko
falta zaigu mordo!

JABILO

Ez da egia laguna,
denbora arin doa.

Jonan erretzera zihoan zigarrilloa hartzen du.

JABILO

Tabakoak ta bizitzak
antza dute, sozioa.
Erretzen hasi aurretik
dena da ilusioa.
Sua piztuz martxan dugu
zupadaren bizioa.
Piztu eta lehen zupada,
aurrena, estrainekoa,
plazer ikaragarria,
ezin azaltzekoa,
lurrina xamurra baita,
lore, belarrezkoa,
eta zapore leuna
eztitan eztizkoa.
Zeinen errez jausten garen
kearen engainoan,
susmatu gabe plazarra
bukatzen dela atoan,
piztu orduko hasia baita
bukaeraen aroa!
Nahi baino azkarrago beti

kontsumitzen dijoa.
 Azken zupadak uzten du
 gusto mikatza ahoan.
 Lurrera botaten dugu
 zabor bihurtutakoa.
 Kupida gabe zapaltzen
 azken argi oinpekoa.
 Azkenik kea ez besterik,
 baina joan, badoa...
 ta geratzen da ezer eza
 huts behin betirakoa.

Jabilo, "pausa dramatiko" baten ostean, barrez hasten da. Bitartean, Paul, bazter batera doa, negargurea disimulatzer.

JABILO

Barkaidazue mesedez
 jardun dut esan da esan
 baina banuen beharra
 barrena hustu nezan.

Jabilo Paulekin erreparatzen du.

JABILO

Paul? (...) Baina zer daukazu?

PAUL

Ez da ezer, ondo da.

JABILO

Ez naiz konforme geratzen.
 Zergatik zaude ba hola?

JONAN

Piztu egingo zitzaion
 erretzeko monoa.

JABILO

Duela hamar urte utzi zuen!

JONAN

Baina zure mintzoak
 gogoa piztuko zion,
 ez da harritzekoa!

JABILO

Kontua aipatu diozu,
 putakume halakoa!

JONAN

Aipatu? Zer aipatu ba?

JABILO

Pankreasen gainekoa!!

JONAN

Auskalo, aipatu dugu
kontu ta gai mordoa.
Zuk diozun hori ere
agian apurtxo bat.

PAUL

Zuri ere kontatu dizu
niri esandakoa?

JABILO

Zu heldu baino lehenago.

PAUL

Ondo, bai, ederto ba!

JABILO

Argi utzi diot ez dela
kontutan hartzekoa!

PAUL

Kontutan hartzeko bada.
Oso da zentzuzkoa.

JABILO

Ez dut gehiago entzun nahi,
badugu ja nahikoa!
Paul, ondo dakit zarela
nire lagun zintzoa.
Eskatu gabe emango
zenidake besoa,
baina exijitzen dízut:
ahaztu asmo zoroa.

PAUL

Duina da zure jarrera,
jator ta eskertzekoa,
baina egoera ez da honezkero
atzera egitekoa.
Pilota teilatuan daukat
horixe da kakoa.
Arnasa falta zait eta
haizea hartzera noa.

JABILO

Zorionak, Jonan, ondo
nahastu duzu giroa!

Paul badoa beste gunera, aurpegia freskatzera. Estu dago.

JONAN

Ondo da, ahastu dena, eta eutsi goiari,
inoiz iritsiko ez den pankreas berri baten zain
(*Paul-i*) Ta zuk urtebete barru, alferrik hiltzeaz gain
publikatu facebookean: “Pankreas bat dut opari.
Ez zen iritsi laguna garaiz salbatzeko lain
baina balioko dio foie-gras egin nahi duenari.”

JABILO

Jonan, mekagoenlaputa, nahikoa da umore beltzaz!
Lehen ere esan dizut ba, gusto txarrekoa dela.

JONAN

Ez da ba nire errua, egia da krudela
Ixilduko naiz, ordea. Aho aitxiko dut giltzaz.

Paul bueltan dator.

JABILO

Paul, zer duzu? Zurbil zaude.

PAUL

Ez da kezkatzekoa.

Zorabio bat ez besterik, eta baita hozkirria.

Jonan-ek paper bat ateratzen du poltsikotik.

JONAN

Hau botako dut ba.

JABILO

Zer da?

JONAN

Ezer, ez, agiria,
donantea izan nahi duenak sinatu beharrekoa.

PAUL

Dena prest etorri zara, Jonan ze detailea!
Utzi ikusten.

JABILO

Uztazu ba!

Jonan-i hartzen dio Paulek.

PAUL

Eman, hala ta guztiz.

JONANDonatzera dihoanak bete behar du adieraziz
emaile izateko nahia, ta nor den hartzailea.**PAUL**Antza denez ziur zeunden gau honexetan bertan
baimena emango nuela, zuk esan da berehala.**JONAN**Ez, gauza hauek ezin dira erabaki nola hala.
Kontu larria da hauxe, ondo dakit benetan.*Paul-ek paperak bueltatzen dizkio.***PAUL**Hau ez da espero nuen gau gozo eta xamurra.
Ez nintzen kalera irtengo hau lehenago baneki.
Itotzen ari naiz hemen, arren lehioa ireki.
Usain arraroa dago, zer arraio da?**JONAN**

Beldurra.

PAUL*(Haserre)* Ixilduko zara behingoz, alproja nazkantea!**JABILO**Ez zaitetz urduri jarri, ez hartu aintzakotzat,
urtebete falta zaizu, eta niretzat behintzat
urte bat denbora asko da, ia eternitatea.**PAUL**Bildurra sobera daukat edo ausardia motza.
Prest egon behar nuke baina adorea falta zait,
garbi neukala uste nuen, eta oker nintzen nonbait.
Ezin duzu imajinatu sentitzen dudana lotsa.**JONAN**Nigatik aztuta dago, gera zaitetz baketan.
Bakarrik kontu txiki bat, hemendik irtetean
Facebookeko lagunei idatzi internetean
suizida ausartak egin duela kaka bere praktetan.*Paul abailduta.***PAUL**

Edonola ere, Jabilo, ez dut nahi zu hiltzea!

Jabilok Paul besarkatzen du.

Jonan ere emozionatu egiten da, baina bazter batera doa, besteek ez ikusteko.

JABILO

Tira, non geratu ote da gizon arrazional hura?

PAUL

Ez dakit, Jabilo, ez dakit. Ez da inoiz egon, itxura.
Ez naiz koldar bat besterik. Hobe dut onartzea.

JABILO

Ez zaitetz horrela jarri, negarrez ta etsita
Jonanen eredua hartu, ez dauka inoiz flakia.
Beti topatzen du berak, txantxarako aitzakia.
Itxoin ta utziko dizuet auzia erabakita.

Jabilo badoa beste gunera.

Paul eta Jonan bakarrik geratzen dira, isilean.

Bitartean, Jabilo-k, beste gunean, paper batzu ateratzen ditu nonbaitetik

JONAN

Jabilok arrazoi, bai
Ni naiz ba egon naizena
nahastuta.
Beraz zu egon lasai,
niregatik dago dena
ahaztuta.

PAUL

Berandu, Jonan, arren!
Jada ezin naiz erori
beherago.
Utzi nauzu nabarmen.
Ni bezalako doilorrik
ez, ez dago.

JONAN

Kontu batek, ta barkatu,
eman dit niri askotan
atentzioa.
Nola behar zenuen gauzatu,
aurrera egitekotan
suizidioa?

PAUL

Pilula baten bidez.
Aspaldi daukat gordeta
gau-maiean.

JONAN

Ez daukazu han, berez.
 Nik neuk hartu nizun eta
 lehengo astean.
 Bistan ikusi ta ezin
 saiestu eramateko
 lizentzia.
 Bueltatzeko asmoekin
 natorkizu arintzeko
 kontzientzia.

Paul-ek pastillero bat ateratzen du poltsikotik. Baruan pilula bat dago.

JONAN

“Pentobarbital” dio hemen.
 Eta hau lortzen da errez
 farmazietan?

PAUL

Lortu nuen Interneten.
 Eta emaidazu mesedez
 ointxe bertan!!

JONAN

Merkatu beltza, beraz!
 Hola ez duzu IV Arik
 deklaritzen.
 Listoa zara, soberaz.
 Ez duzu detailerik
 deskuidatzen.

PAUL

Horrek non dauka grazia?

JONAN

Pilulak min ematen du?

PAUL.

Min gabia.

JONAN

A zer nolako efikazia!
 Ta hiltzen tardatzen du..?

PAUL

Ordu erdia.

JONAN

Denbora tarte polita

presarik ez baduzu.
Ez da txarra.

PAUL

Egon ahoa itxita.
Nazkatuta naukazu,
piztitzarra.

JONAN

Kontra indikaziorik?

PAUL

Seko hiltzetik aparte??

JONAN

Bai, ba, jakina.

PAUL

Ez ukitu potrorik.
Nahiko ibili duzu oinarte
joku zikina.

JONAN

Jakin nahi organorik
kaltetzen duen edo ez,
bada... bihotza
edo beste barrunberik...

PAUL

Pankreasa?

JONAN

Adibidez.

PAUL

Asto korotza.
Arnasa hartzeko bidia
geratzen da bakarrik
kaltetuta.

JONAN

Pilula zoragarria!
Ze ondo antolaturik,
hijo puta!
Esango dizut samurki:
listoa bezain zolia
baldin bazina
salbatuko zenuke aurki
aiskide baten bizia.

Ulertu ezina.
 A ze sorpresa, laguna,
 hainbeste hitz ta teoria
 ihardun ta,
 gu bezain gris ta biguna
 zara, gaixo eroria.
 ta arrunta.

Jonan-ek pilula bueltatzen dio Paul-i.

JONAN

Gizajoaz ari garela...
 Non ote dao Jabilo?

Jabilo sigue como hace un rato, con sus papeles, pensativo

JABILO

Lasai, hemen.

JONAN

Ta dena ondo, bestela?

JABILO

Geratu naiz erdi lo!

JONAN

Ea zer duen.

Jonan Jabilorengaa doa. Honek ez du burua alztatu ere egiten.

JONAN

Zelan, Jabilo, ba al da zeozer?
 Esaidazu arren, zer dabil oker?

JABILO

Gaixotu nintzen... oin urtebete?
 Gezurretan nabil beste hainbeste.

Jabilok eskuetan dituen paperak pasatzen dizkio. Jonan irakurtzen hasten da.

Bitartean, Paul, saloian, pastilleroari begira.

PAUL

Suizidioa azaltzen dut aldiero
 eta kikildu ordua helduz kero.
 Urte bat falta, baina ez da aitzakia,
 zeken ta koldarra da gizakia.
 Aspaldi hartu nuen nire jarrera,
 ikusita nire aitaren gainbera.
 Aitarena hain izan zen gogorra...
 Ez zuen merezi halako zigorra!

Poliki galdu zuen memoria
gizatasuna uzteko galzoria,
ondu arte zeharo burmuina,
amaiera ez zen izan, ez, duina.
Ezin ezer egin gaitzaren aurka,
lausotu zitzaigun apurka apurka.

Bitartean, Jonan-ek paperak irakurri ditu.

JONAN

Zer da hau? Hematies? Glukosa?
Ez da gau hontarako aproposa.

PAUL

Aitak kabaletan zegoela
hartu zun erabaki krudela:
behinbetiko gainbera baino lehen
bere buruaz beste egingo zuen.
Baina hortarako ausardia beharko
ta beti uzten zuen biharko,
aitzakiarekin oraindik zela goiz
oraindik zeukala burua sasoiz.
Noizbait argia biurtu zen laino
hil nahi zuela guztiz ahazteraino.
Memoria betiko galdu zuen!
Buru , gizatasuna... amen!

JONAN

Hau ez al da mediku txostena?

JABILO

Edo gezur baten azalpena.

PAUL

Genetikoa zen aitaren gaitza.
Ta ulertu nuen egia bortitza:
neuk ere heltzean adin batera,
sufrituko nuela gaitz berbera.
Prestatu nuen neure barrua
ez jarraitzeko aitaren eredua,
horregatik jarri nuen epea
ta otu zitzaidan publikatzea;
iragarriz gero lagun artera
ezingo nuelako egin atzera.
Baina ordua zenbat ta hurbilago

bitzitza hontara lotuago.
Bizitza bizitzari eusten zaio
ta adorerik ez esateko aio,
etorkizunik ez dudan arren...
nahiz honela... Jabilo hilko den.

JONAN

Txosten honek nahastuta uzten nau,
esaidazu mesedez zer den hau.

JABILO

Ez al dago nahikoa agerian?
Joder, Jonan!! Ez nago hilzorian!

PAUL

(Pilula eskuan duela)

Ausartu zaitez, beldurti alena!

JONAN

Ez zaude hiltzen?

JABILO

Gezurra da dena.

PAUL

Jabilok ez du astirik jada...

JONAN

Ordun zure gaitza...?

JABILO

Faltsua da.

JONAN

Baina dena, baita transplantea?

Jabilo asiente.

PAUL

Nire beldurra da...

PAUL, JABILO Y JONAN

Nazkantea!

PAUL

Gezurti bat izan naiz, farsanta.

JONAN

Jode, bai potro pare galanta!

PAUL

Eskua, egin egitekoa.

JONAN

Emango nizun zaplastekoa!

PAUL

Baina ezin dut, ez dut barkamenik!

Paulek piliula pastillerotik atera eta begira geratzen zaio.

JONAN

Ez diguzu zor ba azalpenik?

JABILO

Neuk ere ez dut oso ondo ulertzen
puntu hontara nola heldu naizen.

Aitortzeko sentitzen dut lotsa
baina heldu da une mingotsa.

Goazen hortarako Paulengana,
hobe batera ta ez banan bana.

Goazen, ez zaio entzuten piperrik.
Nago sufritzen ai dela alferrik.

Jonan eta Jabilo irtetera doaz. Jabilok paperak hartzen ditu.

Paul-ek pilula ahora hurbiltzen du.

PAUL

Pentsa gabe, laguna duzu zai!

Pilula irensten du.

Une horretan, Jabilo eta Jonan sartu eta ikusten dute.

PAUL

Kito. Orain lo egingo dut lasai.

Jonan eta Jabilo, harriturik, erreakzionatu ezinik.

JONAN

Hartu egin duzu pilula?

JABILO

Zer egin duzu, gaixoa?

Bota zazu, egin eztula!

PAUL

Ez da izan eroso
baina hartu dut osoa.

JABILO

Ez egiteko esan nizun!

PAUL

Hori da dagokizun
rola adiskide lez.

JONAN

(Bere artean) Ai, lehengoa bazenu entzun!

JABILO

Gau hontan gauz onik ez!

PAUL

Eman agudo papera,
sinatu behar dut azkar.

JABILO

Bidali zaitut lurpera!

PAUL

Besarka daigun elkar!

JONAN

Gaur hondamendia dakar!

PAUL

Ez zen hau zure nahia?

JONAN

Baina ez modu hontara!

Prisa hauek zertara?
Ederra ein duzu jaia.
Goazen urgentzietara!

PAUL

Hortarako berandu!
Heldu naiz azken ordura,
nireak jada eman du.
Bein betirako logura
sartu zait ene barrura.

JABILO

Ez dauka konpontzerik?

PAUL

Ez, ta ni pozik nago.
Inoiz baino arroago.
Ez nuke asmatuko nik
bukaera alaiagorik!

JABILO

Laguna hil egin dut!

Jabilo gelara doa, lehiotik saltatzeko asmoz.

JOAN

Zer zabilta, mainontzi!

JABILO

Salto egitera noa!
Bizia ez dut merezi!

JONAN

Geldi hortxe, zoroa!
Jonan Jabilo geldiatzen saiatzen da.

JONAN

Gelditzeko atoa!

JABILO

Ez, Jonan, utzidazu!

Jonan-ek heldu eta egongelara darama darama.

PAUL

Zer?

JONAN

Saltatzera zihoan!
Leihoak itxi itzazu!
Begira etxe osoan!

Paul irtetera doa.

JONAN

Egon, zuk atsedean hartu.

PAUL

Nahiago okupaturik.

JONAN

Ta nola...?

PAUL

Izaturik.

JONAN

Barka, nik zaitut behartu...

PAUL

Ez neu naiz honetan sartu.

Paul badoa beste gunera eta lehioa ixten du.

Jabilo eta Jonan isilik geratzen dira.

JONAN

Ta orain explikatu zer gertatzen den, zoro horrek!

JABILO

Ez dudala bizi nahi, baina ez nagoela hiltzen.

JONAN

Hori ez da egia, Jabilo.

JABILO

Zer ari zara esaten?

JONAN

Esku hauexekin hilko zaitudala neronek!!

Jonanek lepoa estutzen dio Jabilori.

Paul sartzen da.

PAUL

Zer duzue?

Jonanek Jabilo askatzen du.

JONAN Y JABILO

Ezer ez!

PAUL

Baina itotzen ari zinen...?

JABILO Y JONAN

Ez!

JABILO

Eta zu nola?

PAUL

Ongi. Akaso ahulxeago

JONAN

Jarraitu lehioak ixten. Gela irekita dago.

Paul irteten da.

JABILO

Akatu behar ninduzun, bukatu al bait arinen.

JONAN

Gustora estutuko nuke zinez zure zintzurra,
baina horixe nahi duzu ta ez dut lagunduko nik.
Ta orain azaldu dena, baldin bada azalpenik.
Zergatik asmatu duzu hainbesteko iruzurra?

JABILO

Lehengo urtean gaitz bat diagnostikatu zidaten.
Diabetesa, bakizu, hain zuzen hipergluzemia.

JONAN

Hori da diozuna, ez dut sinisteko premia.

JABILO

Medikuak esan zidan deskansatzeko pixkaten.
Lantegira joan nintzen nire baja eskatzeko.
Langile buruagana joan nintzen segidan,
baina kabroi fatxa horrek hara zer esan zidan:
bere bulegoan ez zela tokirik gaixoentzako
eta egun bakar batez lanari huts egin orduko
kalera joango nintzela, legea zuela alde,
ta nire soldata erdiaz edo ia debalde,
langabetu bat zuela nire tokian hartuko.
Kexa bat azaldu nuen beraz magistraturan.

JONAN

Baina ze magistratura ta magistratura ondoko?

JABILO

Azaltzen ari naiz ba, utzi ziriak geroko!
Joan nintzen, ba, jefea ondo izorratu guran.
Sasi abokatu batek -deabruak eroan dagian-
patrikak hustu zizkidan aholku baten truke:
epaiketa irabazteko egin beharko nituzke
gaixo terminal itxurak epailearen aurrean.
Nik baiezkoa eman nion, a zelako errua!

JONAN

Epailea engainatzea baldin bazen asmoa
gu saltsan sartzearena, zergatik, ba, zozoa?

JABILO

Ba sinesgarritasunez betetzeko amarrua.
Nire hitza indartzeko, epaiketa egunean.
aurkeztu behar nituen gaitzaren zenbait lekuko.

JONAN

Erabili behar gintuzun, oso ondo, motel, ze kuko!
Baina nik ez dut ordea, epaiketa gogoan.

JABILO

Sendagile ustel batek, ederki pagatuta
txosten faltsua egin zidan: pankreatitis larria.
Epaileak ez zuen irentsi. Ostia izugarria!

Epaiketa galdu nuen hasi aurretik, la puta!

JONAN

Baina ondoren egia esan ahal zenuen, ta akabo!

JABILO

Kontatu nizuenetik hilzorian nengoela
maitatzen ninduzuen sekula ez bezela,
ta nahi gabe erori nintzen zuen mimoen esklabo.

JONAN

Gure mimoen esklabo? Ostia bat eta bakea!

JABILO

Zuk ezin duzu ulertu inola motiboa,
ez baitakizu zer den gabezia afektiboa.
Zuk familia daukazu!

JONAN

A ze aitzakia merkea!

JABILO

Zuen maitasunarekin sentitzen nintzen norbait!

JONAN

“Norbait” bazara, seguru, ze Paul gizagaixua
zugatik hiltzera doa, ederra ein duzu, babua!

JABILO

Kabroi hutsa naiz, badakit! Izugarri damu zait!!
Dena den, hartuta zeukan hiltzeko erabakia.

JONAN

Baina oraindik ez!

JABILO

Badakit! A ze gau sinesgaitza!

JONAN

Ta orduan be ez dut uste beteko zuenik hitza.

JABILO

Zer egingo dut orain? Ezin kontatu egia,
bere mina handitzea baino ez nuke lortuko.
Ez dezala inoiz jakin hiltzera doala alferrik.
Ixildu gaitezen beraz, nahastu barik bazterrik.
Nahi gabe gertatu da ta zu zara horren lekuko.

Jonan bat-batean kezkaturik.

JONAN

Nahigabea gurea bai ... non ote dago Paul?

JABILO

Aspaldi da joan dela, joan azkar ikustera.

JONAN

Zergatik ba ni bakarrik? Goazen biok batera.

JABILO

Ehunera daukat bihotza ta hanka biak ahul.

PAUL

Listo, leiho guztiak...

Paulen sarrera ezuztekoa izan da eta Jabilo eta Jonan izaturik.

JABILO

Paul! Oraindik bizirik!

PAUL

Azkeneko ilintiak.

JABILO

Nola zaude?

PAUL

Erdi pozik
eta erdi tristeturik.

JONAN

Non dute elkarren antza?

PAUL

Baita beldur eta adore,
etsipena, esperantza,
xamurtasuna, dolore,
duda ta segurantzaz.
Barka zazu nahaspila,
ez daukat ohitura haundia.
Hauxe da lehenengo aldia
suertatzen naizela hila.
Dena ondo joan dadila!

Jabilok besarkatu egiten du.

JABILO

Nik ez daukat gibelik!

JONAN

Jabilo, zaude ixilik!

JABILO

Hil egin nahi dut zurekin!

PAUL

Eta orduan zer etekin
lortuko duzu ni hilik?
Pozik egon bear duzu!

JABILO

Ta horixe pozik nagoela!
Ume txiki bat bezela!

PAUL

Ez zaitez pasatu aizu!

JABILO

Barkatu, neu bai tentela!

PAUL

Zer da ba momentuan
iritsi zaidan usaina?

JONAN

Kulpa sentimentua.

PAUL

Ta kulpa zergatik, baina?

JABILO

(Jonan-i) Irentsi ezazu mingaina!
(Paul-i) Gaizki dago, ba, normala,
jakinda bera izan dala
bultzatu zaituena,
ideia izan duena,
pasako zaio berala!
Triste dago batetik,
bestetik zorioneko.
Zoriona nigaitik,
tristura zoazelako
gau hontan gure artetik.
(Jonan-i) Esan, ba, ez da egia?

JONAN

Nik ezin dut hau jasan!

JABILO

Triste dago alegia.
(Jonan-i) Ez gehiagorik esan!

JONAN

Hau ez da zilegia!

PAUL

Zer da zilegi ez dena?

JABILO

Sufritzen duen pena.

(Jonan-i) Zer nahi duzu, zakurra?**JONAN**

Aitortu iruzurra!

PAUL

Baina zein aitopena?

JABILO

Barrua nahi du arindu!

Nireak jada egin du.

Kontau dezala berak,
gainditu nau egoerak.

Hobe hil egin banindu!

JONAN

Hau guztia hasi zen duela orain bi aste...

JABILO

Nola duela bi aste? Orain urtebete behintzat.

JONAN

Aste bi esan dut nik, hartu nire hitza haintzat.

JABILO

Baina...

JONAN

Utzidazi niri.

JABILO

A zer nahaste borraraste!

JONAN

Eskolara joana nintzen nire semetxoen bila...

JABILO

Baina ze seme ta eskola? Horiek hemen zertan dira?

PAUL

Utziozu hitz egiten.

JABILO

Baina ez dator harira.

PAUL

Segi Jonan, eta azkar, ez daukat denbora pila.

JONAN

Egunero joaten nintzen, ez nuen egiten huts.
Aitaren zereginetan hori nuen begizkoa,
eraman ohi nien beti bollo gurinezkoa

JABILO

(Erreta) Gurinezko bolloa?

JONAN

Edo bestela donuts!

PAUL

Harira joan zintezke? A zelako embrolloa!

JONAN

Txikitán hartzen ninduten irrifarrez ta bizkor.
Orain berriz biak dira bihurtu mutil koskor
eta dena aldatu da.

JABILO

Ez dute nahi bolloa?

JONAN

Orain gutxi esan zidaten ez etortzeko osterá,
ez zutela pasa nahi lagunén aurrean lotsa.
Arratsalde hura izan zen bene benetan mingotsa.
Semeak galdu nituen egun batetik bestera.
Egun tristeagorik ez dut ezagutu nik.

PAUL

Adoleszenteak dira, ez da hain arrarua.

JONAN

Azaleratu zidaten inoizko mesprezua,
Haien ustez ez omen dut batere duintasunik.
Eragiten omen diet errukia ta kupida,
nik ez omen dut merezi inongo miresmenik.
“Badago” galdetu nien, “inor merezi duenik?”
“Paul” erantzun zidaten, “zure adiskide suizida”.

Isilunea. Hirurak elkarri begira.

JONAN

Gau horretan eman nion emazteari horren barri.
Normala zela, esan zidan, Paul zela gizon aparta,
edukatua, gozoa, zintzoa eta ausarta,
ta bere jarrera duina, zinez eredugarri.
Ez zuela ezagutzen beste inor zure gisa
-erreparatu gaberik egiten zidan mina-,
ez zuela estimatzen beste inor zu adina.

Zure ondoan ni naizela pertsona arrunt ta grisa.
 Horregatik etorri naiz etorri naizen bezela.
 Ziur nengoen faltsua zela zure kemena,
 ez zenuela hitza beteko, ta horra nire krimena.
 Ez nuen batere uste ausartu egingo zinela!

JABILO

Kabroia! Mendekatzeko nahastu dituzu bazterrak?

PAUL

Kabroia esaten diozu? Arima daukazu ustela?
 Bizia salbatu dizu, hilko zinake bestela!
 Zer ostia gertatzen zaizu? Eman segituan eskerrak!

Paul gaizki sentitzen hasten da. Beste biak, eztabaidan, ez dira konturatzen.

JABILO

Paul barregarri utzi, horixe nahi zenuen,
 baina zer mesede handia egin didazun ordea!

JONAN

(Amorruz) Milesker, baina nirea izan bada ere idea,
 meritua beste batek du, ta badakizu nor den!

JABILO

Bada, nik dakidan horrek dena nahi zuen argitu
 baina dakizun batek ez dio eman astirik!

JONAN

Urte bat ez da egia esateko nahikorik?

JABILO

Esan zazu altuago, oraindik ez dizu aditu!

Paul lurrera jausten da.

JABILO

Paul!

JONAN

Ostia!

Jonan-ek pultsoa hartzen dio.

JABILO

Hil da jada?

JONAN

Bihotza oraindik dabil.

JABILO

Emaiozu zartada,

piztuko da, beharbada.
Ez al dago oso zurbil?

Jonanek muturrko bat ematen dio.

PAUL

Hautsi nahiean musturra?

JABILO

Zuzpeltu da, gaitz erdi!

PAUL

Ta? Gezurra dirudi,
elkarri ematen egurra!
Polita zuen agurra!

JONAN

Arrazoia, barkatu.

PAUL

Gordetzen duzue zerbait?

JABILO

Guk... zuri izkutatu?

PAUL

Horixe iruditzen zait!

JABILO

Ez!

JONAN

Ez zaitez fidatu!

PAUL

Zergatik zaude goibela?

JONAN

Mendeku zikina izan da.

PAUL

Ez zaitez jarri horrela,
Ahaztu al zaizu ni joanda
Jabilo biziko dela?

JONAN

Iraungo du bizirik,
ez daukat duda izpirik.
Ziur nagoen bezela
zu hiltzera zoazela,
erremedio gaberik!

JABILO

Etzazu hartu kontuan,
 jar zaitez bere lekuan.
 Jonanek bultzatu zaitu,
 horrek ezin du lasaitu,
 damua dauka buruan.
 Baina zu egon lasai
 funtsean dago oso alai.

JONAN

Bakean uzti, utikan!

JABILO

Pozez zoraturikan!

JONAN

Pozik egon ni? Bai bai!

Paulek beste zorabio bat dauka.

JABILO

Zorabiatuta atzera?

PAUL

Zorabioa, ezina...
 Gertu dago amaiera.
 hauxe da egia gordina.

JABILO

Begoñako Ama Virginia!

Paul eseri edo etzan egiten da. Jabilo eta Jonan bere ondoan

PAUL

Jonan, arrazoi zenuen, ez bazina hola agertu
ni ez nengoke inola suizidatzeko gertu.
Etsita nengoen aspaldi jarraitzera bizirik,
nire betiko asmoa alde batera utzirik.

Jonan eta Jabilo elkarri begira,

PAUL

Esan zure emazteari ez naizela berezi
ta ez dudala inoren miresmena merezi.
Ahaztu gabe esaiozu ni ez naizela heroia
baizik eta gaitz bati beldurra zion bufoia.
Eta zure bi semei esaiezu ene partez
zu ez zarela arrunta edo grisa inola ere ez,
adoretsua zarela, eta borrokalari
ateratzen dakizula zukua bizitzari.

Jonan se emociona.

PAUL

Eta hau zuri diotsut, zoaz popatik hartzera!
Ezin ulerturik nago zure oraingo jarrera!
Zeure borondateagatik gertatu da hau guztia,
ta orain damutzen zaizu, zer gertatzen zaizu, ostia?

Jabilori hurbiltzeko keinua eginez.

PAUL

Ta zu Jabilo, kabroia, a zelako gentleman,
pankreas bat oparitu ta noizko eskerrak eman??

JABILO

Arrazoi osoa duzu. Barkazazu, milesker.

PAUL

Hitz gozo mingainetan eta begirada anker.
Ez dakit zer daukazuen, baina aspertuta nago,
hiltzen ari naiz, ta aukeran, nik pakea nahiago!

JABILO

(Jonan-i) Ondo da, zatoz Jonan, barkatu ta esker anitz,
hau ez zen gertatuko zuregatik ez balitz!

JONAN

Ze apala zaren, Jabilo, ze zintzo ta ze ezitia,
baina argi dago zurea dela meritu guztia!

Besarkatzera behartzen dute euren burua.

PAUL

Horela hobeto dago, ta geratzen naiz lasai.

JABILO

Zer nahi duzu? Hemen gaude zure aginduen zai.

PAUL

Heldu da ba gauza bat egiteko aroa
nahiz zuentzat suertatu apur bat arraroa...

JONAN

Mesedez, konfianta osoa daukazu, ba, gurekin,
eskatu edozer gauza, zuk esan ta guk egin.

PAUL

Une hau heldu orduko, agindu nion amari
norbaitek egingo ziola otoitz nire arimari.

JABILO

Ez dakit errezatzen.

JONAN

Egia esan neuk ere ez.

PAUL

Saiatu zaitezte, baina, pixka bat borondatez.

JABILO

Baina ez dauka zentzurik, gu ez gara kristauak.

JONAN

Bere ama zena bazen.

JABILO

Baina ez gu hirurak.

JONAN

Ez zaigu hainbeste kostatzen, ez da ba astolana!
Kojones! “Aita gurea... eh... zeruan zarana...”

JABILO

Ez: “Zeruetan zarana.”

JONAN

Zer zabiltz, izorratzen?

JABILO

“Zeruan” esan duzu ta “zeruetan” behar zen.

JONAN

Orain lezioak ematen? Zelako barregurea.

JABILO

Koño, esatekotan, ondo esan “aitagurea...”!
 “Zeruetan zarana, santua izan dadila...”

JONAN

“bedi” ta ez dadila, ez zinen ba hain abila?
 “bedi zure izena”, edonork daki, barren!

JABILO

Joan “bedi” pikutara orain ta beti amen!

Aitagurea tarareatzen du.

PAUL

Nahikoa daukagu behingoz ixildu zaitezte, arren,
 pozik hilko naiz benetan, zuek ez jasatearren!!

Jonan eta Jabilo isiltzen dira, lotsaturik.

JONAN

Arrazoi duzu, barkatu, nirea da errua.

JABILO

Ez, nirea da ta ulertzen dut zure amorrua.

JONAN

Nirea izan da ta kitto, ez tenkatu ba, katea.

JABILO

Ez zurea ta ez nirea, biona da ta bakea.

JONAN

Eta orain esaiguzu, sentitzen duzu minik?

PAUL

Bakarrik logurez nago, ta arnasa hartu ezinik.
 Lantzean behin ate joka ibiltzen zait ikara,
 baina ez da barrura sartzen, elkarrekin baikara.
 Dena den somatzen dut hurbil dela amaiera.

Jabilo negar guraz.

PAUL

Ixo, edo hasiko naiz ni ere zure antzera.
 Ez dut nahi gau honetan sentitu hil kanpaia,
 guztiz kontrakoa nahi dut, egin dezagun jaia!

JONAN

Ez dago jai girorik.

PAUL

Ahalegina egin, lagun.

JABILO

Ondo da, nahi baduzue, zerbait kanta dezagun.

JONAN

Zer kantatuko dugu?

JABILO

Lehen bagenuen ohitura.

PAUL

Kanta alai inozo bat, urrun uzteko tristura!

Ixilune baten ostean.

JABILO

Desmond has his barrow in the market place...

Molly is the singer in a band...

Desmond says to Molly "Girl, I like your face"

And Molly says this as she takes him by the hand...

Jonan eta Paul batzen dira.

JABILO, JONAN Y PAUL

Ob-la-di, ob-la-da, life goes on, brah!...

Lala how the life goes on...

Ob-la-di, ob-la-da, life goes on, brah!...

Lala how the life goes on.

Bukatzean, elkarri begira, irribarrez. Gutxira, Paul bakarrik hasten da, ia erreztatuz.

PAUL

Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai,
hauts hartatikan uste gabean noizpait ginaden gu ernai.

Jabilo eta Jonan batzen dira.

JABILO, PAUL ETA JONAN

Eta horrela bizitzen gera sortuz ta sortuz gure aukera
atsedenik hartu gabe: lana eginaz goaz aurrera
kate horretan denok batera gogorki loturik gaude.

Jonan eta Jabilo konturatu gabe, Paul isiltzen doa, astiro.

PAUL, JABILO ETA JONAN

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira bestek,

Paulek begiak ixten ditu.

JABILO ETA JONAN

burruka hortan iraungo duten zuhaitz-ardaska gazteak.
Beren aukeren jabe eraikiz ta erortzean berriro jaikiz

Jabilok Paul ikusten du. Isiltzen da.

JONAN

ibiltzen joanen direnak ...

Jabilok keinu egiten dio Jonan-i.

Jonan isiltzen da.

Isilune luzea.

JABILO

Agur, laguna, betirako zoaz
ezagutu gabe nire geuzurra.
Haize latzak urrutira daroaz
nire lotsa eta beldur makurra,
baina jaso zazu berba zintzoaz
lagun koldar honen azken agurra.
Gutaz jabetu da orain tristura,
laster etorriko da arregura.

Jabilo altzatu eta beste gunera doa.

Jonan bakarrik geratzen da.

JONAN

Ikasbide ederra, Paul, zeren gaur,
hondatu nahiean zure itzala,
jakin dut urre zarela, ni zimaurre,
emazteak arrazoi zeukala,
modu ederrean esan duzula agur,
zu bezalako lagunik ez dala.
Garratza izango da gure pena
gozoa berriz zure oroimena.

Jabilo altzatzen da, bapatean izaturik.

JABILO

Ez ote da geratu begiak zabalik?

JONAN

Normala da, Jabilo, ez izan beldurrik.

Jabilo badoa. Jonan badoa bere atzetik.

JONAN

Zergatik utzi nauzu han bakar bakarrik?

JABILO

Hor dagoelako bera nigana begira
ta izela da benetan begion diztira.

JONAN

Horiek txorakeriak besterik ez dira.

JABILO

Egoera jarri zaigu benetan itsusi.

JONANJabilo, orain mesedez histerian ez jausi!
Hildakoek ezin dute inolaz ikusi!**JABILO**

Gauza hauek gertatu al dira batzutan.

JONAN

Horrela segiz gero jarriko naiz sutan!

JABILO

Ni hara berriz ez noa edozein modutan.

JONANPaul hilda dago ta ezin da berpiztu,
Beilatu egin behar dugu, ta beldurrak ahaztu!
Etzazu orain zuk dena gehiago likistu!**JABILO**Garbi sentitu dut nik sentitu dudana:
Paul artez begira zegoen nigana.*Jonanek muturreko bat emate dio.***JONAN**

Badakizu zer duzun? Kontzientzian zama.

*Beste gunean, Paul, eserita dago, utzi duten moduan. Halako batean kolokan hasten da, eta pixkanaka erortzen doa, lurrean jo arte.**Kolpearekin esnatzen da.***PAUL**Holako ametsik ez dut eduki sekula!
Lagunekin nago, ba, afaria dugula,
eta halako batean...*Ingurura begira eta egoeraz jabetzen da.***PAUL**

... hartu dut pilula!

JONAN

Ez dut txorakeriarik gehiago entzun nahi.

Paul pilula hartuta hil egin da, konpai!

JABILO

Hilda dago, bai, baina ez dago oso lasai.

PAUL

Ulertzen hasia naiz jazo den guztia:
pilulak ez dit kendu inolaz bizia,
lokartu ta orain nago esnatzen hasia.

Pastilleroari begira,

Somnifero bat zen ta ez Pentobarbital.
Engainatu ninduten, putamadre, genial!
Nik heriotza erosi ta haiek bizia sal.

JONAN

Hartu arnasa sakon, mantendu zentzuna
ta egin dezagun behingoz egin behar duguna.

JABILO

Tragu bat hartu ondoren. A ze estuasuna!

PAUL

Zergatik pozten naiz ni, alproja tuntuna!

Jabilo salbatzeko egin nun ituna,
ni bizirik banago, hilko zait laguna.

Jakiten duenean ez nagoela hila
hartuko du gaixoak nahigabe handia,
hondoratuko zaigu zeharo mutila.

Jabilok kopa hartzen du.

JABILO

Pattarra honekin behintzat adoretu egin naiz
Barkatu, holakorikan ez zait gertatzen maiz.

JONAN

Edango dut nik ere, bagaude ta garaiz.

Irtetera doaz, baina Jabilo ez da ausartzen.

PAUL

Jabilo hilko zaigu ta ni naiz errudun.
Egoera honetan nola behar dut erantzun?
Ez dakit zer azaldu, ezta nola jardun.
Zerbait erabakitzen dudan bitartean
hildakoaren itxurak nago egitekotan.

Bururatuko zait ba, zerbait batpatean.

Usaindu egiten du.

Iristen zait oraindik sudur ingurura
lehen somatu dudan usain arraro hura.
Badatoz eta orain, sudurrean hazkura!

Jabilo eta Jonan Paulengana doaz. Honek hilarena egiten du.

Jonan hurbiltzen da Paul-engana. Jabilo aparteago.

JONAN

Hurbildu zaitez hona, uxatu beldurra.

JABILO

Usain berezia dago... Zer da, hil usaina?

JONAN

Ez dakit, hil kontutan badakit zuk adina.

JABILO

Gaua ez da izango batere xamurra!

JONAN

Zatoz hona, hartuko diozu tamaina.

Jabilo , bat-batean, gogoratu egiten da zerbaitetaz.

JABILO

Baina zer ari gara gu kontu kontari!
Altzatu zaitez, Jonan, tira, mugi, goazen,
hartu telefonoa, deitu S.O.S. deiari,
kendu behar zaizkio Paulen gorpuari
organo on guztiak, usteldu baino lehen.

Paul-ek begiak irekitzen ditu izuturik, lagunak ikusi gabe.

JONAN

Zer diozu, Jabilo, ez dago zergatik!

JABILO

Ez gaitezen mesedez, eztabaidan hasi,
ordu erdia dago, hiltzen zarenetik
dena ateratzeko, ta pasa da kasi!

Jabilok mobila ateratzen du.

JABILO

Zerbait onik atera, dezagu hemendik!

Jabilo numero bat markatzen hasten da.

Paul, bien bizkarrean, urduri, zer egin jakin gabe.

JABILO

(Telefonoz) Arren, urgentzietara agudo pasatu,
denbora galdu gabe, joder, larria da!
Urgentzietarako “bi” zenbakia sakatu??

Tekla sakatzen du.

JABILO

Bale, “bi” zenbakia sakatu dut jada,
Orain... musika dago!! La ostia, biba tu!
Entzun mesedez, asko gustatzen zait Vivaldi,
baina emaila bat dugu, hil zaiguna aspaldi
eta ezin dugu geratu pizzikatoaren zain!
Nola??? “Hiru” zenbakia sakatzeko orain?
Pikutara joan zaitez, kapullo gibelandi!!

Jonan-ek mobila kentzen dio.

JONAN

Egin duzu jadanik nahikoa iskanbila!
Hildakoak beilatzen zara, bai, abila!
Hutsune bat al dago zure memorian?
Gogoratu ez zaudela batere hilzorian,
hau dena izan dela gezur borobila!

Paul harri harri eginda.

JABILO

Mila esker laguna, azalpenagatik.
Baina detailetxo bat ahaztu zaizu, ahatik:
Gaixo pilo bat dago, pankreas baten zai.
Paulek berea zuen erregalatu nahi,
nigatik ez bada ere, beste batengatik.

Paul gero eta harrituago.

JABILO

Paulen asmoa horrela nahi nuke kunplitu,
bide batez kontzientzia nolabait zuritu.
Ostantzean beldur naiz Paulen mamuak
lurretik berpiztu ta nigana altzatuak,
nahiko dituela zorrak nirekin garbitu.

PAUL

Kabroi putasemea, sasikume alena!!

JONAN

Ama Begoñakoa, heldu zaigu azkena!

JABILO

Paulen arima data, mendekuaren bila!
Hemen egongo dira, bai, hildako pila!

JONAN

Gelditu zait bihotza bularrean barrena!

Jabilo belauniko, erregutuz.

JABILO

Entzun, mamua edo arima errari,
(*Jonan seinalatuz*) Kulparen parte handia egotzi berari!

JONAN

(*Jabilori*) Hobeto egongo zinen ahoa itxita.
Gezurtero, koldarra, ta orain salatari.
(*Pauli*) Ez dut ezer egin nik... gutxienez nahita.

PAUL

Ez al ditugu aski oihu ta negarrik??
Ez duzue ikusten bizirik nagoena?

JABILO

Paul, bizirik zaude, lagunik onena?
Jonan konortegaberik lurrera jausten da. Jabilo ez da konturatzen.

PAUL

Zergatik ez daukazu pankreasen beharrik?

JABILO

Barka baina neronek galdetu dut lehena.
Paul Jabilorengana, mehatsukor.

PAUL

Zer duzu, ba, Jabilo, bapatean muturik?
Jabilo atzeraka.

JABILO

Jonan, arren, lagundu, ez egon ixilik!
Jonan lurrean dagoela ikusten du.

JABILO

Zertan ari ote zara? Altza zaitez gora!
Aurpegia eman behar duzu, hau ez da ganora!
Hurbildu eta konorterik gabe dagoela ematen du.

JABILO

Jonan? Jonan, zer duzu?

PAUL

Ez ote dago... hilik?

JABILO

Bai zera! Ez da posible!!!

PAUL

Hil da gizajua!!

Hau zen bere laugarren ta azken infartua.

JABILO

Itxoin pixka batean, ez nago seguru.

Jabilo badoa.

PAUL

Ez berarekin utzi biok buruz buru!

Paul, izututa, Jonanengandik urruntzen da.

Handik pixka batera hurbiltzen da.

PAUL

Jonan, nik be banuen gezur izkutua.

Paul hurbiltzen zaio astiro.

PAUL

Badakit honezkero beranduegi dena,
 baina halere entzun nire aitorpena.
 Funtsa zuen susmoak emaztearekiko
 zeren orain dela aste bat ta piko
 egin nuen harekin egin behar ez nuena.
 Bera etorri zitzaidan inoizko sukarrez
 guztiz desengainata zegoela senarrez,
 miresten ninduela, miretsi ta maite.
 Gauza batzuk bestera segidan darraite,
 ta nahi gabe ornitu zintudan adarrez.

Jabilo une hartan iritsi eta baso bete ur botatzen dio. Jonan esnatzen da.

JONAN

Zer koño...?

PAUL

Ostia!

JABILO

Jonan, ederra sustoa!

Gau hontan hartu diogu hiltzeari gustoa!

JONAN

Ba ni ondo ezik nago, airea falta zait.

JABILO

Egia esan neu ere larri nago nonbait.

JONAN

Badago etxe honetan gaur giro itoa.

JABILO

Hobeto egongo gara lehioak zabalik.

Jabilo irtetera doa.

PAUL

(Jonan-i) Orduan entzun duzu lehen esan dudana?

JONAN

Zerbait esan didazu?

PAUL

Ez du garrantzirik.

Jabilo irteten ari dela ikusirik.

PAUL

(Jabilo-ri) Ta zuk esplikazio bat daukazu zintzilik!!

JABILO

Hitz egin zuk lehenago, ta esango dut dana.

PAUL

Nireak ez du behar azalpen haundirik.

Pastilla hori saldu zidan gameluak
ziria sartu zidan ta nik, memeluak,
txintxo erosi nuen, ondo pagaturik.
Emaizta bistan dago, ez nagoela hilik.

JABILO

Eta gu pozten gara biziki, benetan.
Nire kasua ez da azaltzen hain errez.
Aspalditxo batean nabil gezurretan.
Luza ninteke baina, horra, hitz gutxitan:
trasplantearen beharrik euki ez daukat, ez.
Galdetuko diozu zeure buruari
nondik ote datorren nire malezia.
Errua botaiozu bakardadeari.
Arindu beharra nuen, bada, tristezia.
Psikologoaren hitzetan: "laztan gabezia".

PAUL

Nola liteke dena hainbeste kakastu??

JABILO

Kabroi zitala naiz bai, zakurran puskerra!
Dena den Paul, laguna, gauza bat ez ahaztu:
(Jonan seinalatuz) Bere ideia izan da, berak zaitu nahastu.
Ta zurea, Paul, beno... ze gestu ederra!!

PAUL

Madarikatu alena, kabroi gezurtero!

Paul Jabilorengana doa. Jonan tartean jartzen da.

JONAN

Ez duzu ezer lortuko burua galduta!

PAUL

(Jabilori) Burutik joanda zaude, zeharo jota, ero!

(Jonani) Eta zurea, Jonan, txarragoa da gero.

Hauxe da daukazuna: inbidia puta!

JONAN

Ondo da, Paul, daukazu arrazoi guztia.

Nazkagarriak gara, ezin dut ukatu.

Bera gezurtia da ta ni bekaiztia.

Dena zure esku dago, zuk zeuk aukeratu:

barkamena eskaini ala mendekatu.

Paul lasaitu eta pentsatzen hasten da.

PAUL

Inork baldin badauka kontzientzia garbi

bota dezala berak lehenengo harria.

Gertatu dena izan da ikaragarria

Baina mendekatzera ez noa, ta geldi!

Neu ere ez naiz santua, ez naiteke atrebi.

JABILO

Ze jarrera bikaina, a ze noblezia!

PAUL

Ez daukazue, ahatik, asko merezia!

JABILO

Nobleago orduan, bikaina cum laude!

PAUL

Ta jazo dugun arren nahiko desgrazia,

amets txarra bukatu ta bizirik gaude.

JAVILO

Horixe da benetan, inportanteena.

Hasiera latza baina ona izan da azkena.

PAUL

Gaur ondo portatu da gurekin patua.

JABILO

Festejatu dezagun ondo ospatua.

Deskortxatzera noa ardorik onena!

Jabilo bado sukalderuntz. Bidean gelditzen da.

JABILO

Gau hontan hirurokin
zuen koketeatu nahi
heriotzak,
baina egin diogu izkin
geratu beharko du zai,
gora biotzak!

JONAN

Eta ez zaude gaixorik
ez daukazu sikan
katarrorik.
Ez daukat ba arazorik
pizteko nik nahi eran
zigarrorik!

JABILO

Emaidazu bat mesedez.
Bukatu egin zait niri.

PAUL

Arpa jotzen?

Jabilok tabako pakete huts bat ateratzen du boltsikotik.

JABILO

Dena dakizuenez,
ez dut zertan ibili
izkutatzen.

Jonan eta Paul elkarri begira. Irribarre egiten dute. Jabilok zigarro bat hartzen du.

JONAN

(Pauli) Nahi duzu zigarrorik?

PAUL

Aspaldi ez dudala erretzen!

JONAN

Ta? Ze arraio!

JABILO

Bizitzak ez du zentzurik
zuku osoa ateratzen
ez bazaio!

Paulek zigarroa hartzen du.

PAUL

Bizio honek hilko gaitu
Gurea ez da benetan
zuhurra.

JONAN

Tira, ba Paul, alaitu!
Bizirik gaude ta eman
egurra!

Hirurek zigarroa ahoan ipini eta piztera doaz.

Une horretan akzioa gelditzen da, eta publikoari hitz egiten diote, hasieran bezala.

JONAN

Hori, bizidun maiteak, jazo zen gau horretan.

JAVILO

Ikusi duzuen guztia gertatu zen benetan.

PAUL

Prentsan azaldu omen ziren gezur izugarriak
horregatik altza dira gure arima errariak.

JAVILO

Benetan kendu dugula pisu handia gaineratik.
Ez naiz hain arin sentitu hil nintzen egunetik.

PAUL

Arin sentitzearen horrek badu azalpen garbia:
extirpatu bait digute gure barruko guztia.

JABILO

Nire pankreasa salbu, ez dabil eta ondo,
Bestelako dena: gibel, bihotz eta garondo.

JONAN

Baldintza batzuk zituzten markatu gure patua.
Sikologikoa lehena: despiste baten kontua.

PAUL

Kafea egiten nengoen ta Jonan agertu zen
lehen bait lehen neure burua hiltzeko proposatzen.

Kafea egitearena utzi nuen segidan,
ta ikaraz butanoa ixtea ahaztu egin zitzaidan.

JABILO

Fisiologikoa izan zen bigarren motiboa:
atentzioa jartzeko almen selektiboa.
Kiratsa bazegoela somatu gendun baina
konturatu gabe zela butanoaren usaina.

JONAN

Fisikatik omen dator hirugarren baldintza artez:
 gerta daitekeen guztia, gertatzen da ezinbestez.
 Koinzidentzia makurren ta aldrebesena bada
 bete egingo da inoiz be, denbora kontua da.

Hiru pertsonaiak, berriro, utzitako ekintza berreskuratzen dute.

JONAN

(Pauli) Nahi duzu zigarrorik?

PAUL

Aspaldi ez dudala erretzen!

JONAN

Ta? Ze arraio!

JABILO

Bizitzak ez du zentzurik
 zuku osoa ateratzen
 ez bazaio!

PAUL

Bizio honek hilko gaitu
 Gurea ez da benetan
 zuhurra.

JONAN

Tira, ba Paul, alaitu!
 Bizirik gaude ta eman
 egurra!

Hirurek zigarroa ahoan ipini eta piztu egiten dute.

Eztanda.

Iluna.